



ZIURTAGIRI POLITIKA

ENTITATEA ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ENTITATEA

Erreferentzia: Entitatearen_Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri-politika
Bertsio zkia.: v 1.0
Data: 2016ko urtarrilaren 11an

© IZENPE 2016

Dokumentu hau IZENPErena da. Kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik

 IZENPE
Beato Tomás de Zumarraga 71 - 1ª Planta
01008 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 067 723
www.izenpe.com





AURKIBIDEA

1	ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA.....	3
1.1	DEFINIZIOA.....	3
1.2	ERABILERA-ESPARRUA.....	4
1.3	ZIURTAGIRIA IDENTIFIKATZEA.....	4
1.4	XEDAPEN OROKORRAK.....	4
2	ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA.....	5
2.1	ZIURTAGIRIA ESKATZEA ETA DOKUMENTAZIOA EGIAZTATZEA.....	5
2.2	ZIURTAGIRIA JULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA.....	6
2.3	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA.....	7
2.4	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA.....	7
2.5	ZIURTAGIRIAK BERRITZEA.....	8
3	ZENBATEKOA.....	8
4	ALDAKETAREN KUDEAKETA.....	9
5	ZIURTAGIRIAREN PROFILAK.....	9



1 ZIURTAGIRIAREN DESKRIBAPENA

Dokumentu honek *Entitatearen eta Nortasun juridikorik gabeko entitatearen* ziurtagiriei dagokien *ziurtapen-politika* jasotzen du; ziurtagiri horiek *Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe, SA* enpresak jaulki ditu (aurrerantzean IZENPE).

Dokumentu honen helburua da IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* mota horretako ziurtagirietarako definitutakoa zehaztea eta osatzea.

1.1 Definizioa

Bi ziurtagiri horiek sinadura elektronikoko ziurtagiriak dira, eta biak legez onartutzat jotzen dira *–sinadura elektronikoari buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean* ezarritakoaren arabera–, baita kualifikatutzat ere *–1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Araudiaren* arabera–.

Ziurtagiriak desberdinak dira:

Entitatea,

Eskatzailea, hau da, sinadura sortzeko datuak zaintzearen arduraduna izango da gakoan edukitzailea, eta haren nortasuna barne hartuko da ziurtagiri elektronikoan.

Kasu horretan entitateak egindakotzat joko dira sinadura elektronikoa erabiliz egindako ekintzak edo kontratuak.

Nortasun juridikorik gabeko entitatea,

EHA/3256/2004 Aginduak, irailaren 30ekoak, zehaztutakoaren arabera jaulkitzen da. Zergen esparruko datuen komunikazioak eta transmisioak bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikotatik egiteko bakarrik erabili ahal izango da.

Ziurtagiriaren harpideduna nortasun juridikorik gabeko entitatea izango da; edonola ere, Zerga Lege Orokorrak 35.4 artikuluan aipatutako entitateetakoren bat izango da. Eskatzailea arduratuko da sinadura sortzeko datuak zaintzeaz, eta haren identitatea ziurtagirian jasoko da.

Non:

- Ziurtagiriaren eskatzailea, ziurtagiria erakunde baten izenean eskatzen duen pertsona den.
- Sinatzailea, ziurtagirian identifikatutako pertsona fisikoa den.
- Harpideduna, ziurtagirian identifikatutako entitatea den.
- Gakoan edukitzailea, sinadura digitaleko gakoak dituen eta horiek zaintzeaz arduratzen den pertsona fisikoa den.

Euskarriei dagokienez, ziurtagiriak honela jaulki daitezke,

- Txartela / token USB: txip kriptografiko gainean.
- Softwarea: IZENPEren ziurtagirien edukitzailean.
- Egoitz@ (HSM + txartel birtuala): gordetegi zentralizatu seguru batean (HSM) – erabiltzailea tresnerian instalatutako software txiki baten bidez (txartel birtuala) sartzen da bertara–. Software horrek erabiltzaileek ziurtagiriak erabiltzeko egiten dituzten eskaerak kudeatzen ditu, eta, horretarako, biltegi nagusiarekin konektatuko da eta beharrezko eragiketa kriptografikoak eskatuko ditu.

1.2 Erabilera-esparrua

Ziurtagiriak desberdinak dira:

- *Entitatea,*
Harpidedunek entitate erabiltzaileekin izaten dituzten harremanetan erabiliko da, baita ziurtagiria erabiltzea onartu duten erakunde publiko eta pribatuekin izaten dituzten harremanetan ere.
- *Nortasun juridikorik gabeko entitatea,*
Bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikoko bidezko zerga-alorreko komunikazioetan eta esparru horretako datuen transmisioan soilik erabili ahal izango da.

1.3 Ziurtagiria identifikatzea

Ziurtagiri horiek identifikatu ahal izateko, IZENPEK honako objektu-identifikatzaile (OID) hau esleitu die.

ZIURTAGIRIA	OID
Entitatearen ziurtagiria (txartel kriptografikoa)	1.3.6.1.4.1.14777.2.7
Entitatearen ziurtagiria (software-euskarria)	1.3.6.1.4.1.14777.2.8
Nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777.2.9

Onartutako/kualifikatutako ziurtagiri gisa jaulkitzen direnez gero, objektu-identifikatzaile (OID) hau izaten dute gehigarri gisara, Telekomunikazioko Arauen Europako Institutuak TS 101 862ren bidez ziurtagiri onartuen profiei buruz zehaztutakoarekin bat etorritz: 0.4.0.1862.1.1.

1.4 Xedapen orokorrak

Identifikazio-betebeharrak

IZENPEK –berez edo berarekin hitzarmenak izenpetu dituzten entitate publiko erabiltzaileen bidez-egiaztatzen ditu, dagozkien erregistroetan, eskatzaileen, harpidedunen eta ziurtagirien gakoan edukitzaileen identitatea eta beste zeinahi datu pertsonal, ziurtagirien xedeetarako garrantzizko izan daitezkeenak betiere.

Era berean, egiaztatzen du harpidedunak behar bezala baimendu duela sinatzailea.

Ziurtagiri-harpidedunaren betebeharrak

Harpidedunak Ziurtagiri Praktiken Deklarazioan –*Ziurtagiriaren harpidedunaren betebeharrak*– jasotzen diren betebeharrak bete beharko ditu.

2 ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

2.1 Ziurtagiria eskatzea eta dokumentazioa egiaztatzea

Eskatzaileak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* bete eta sinatu beharko du, eta harpidedunaren kontratua onartuko du.

Eskaera honela sinatu ahal izango da:

➤ Modu elektronikoan.

Eskatzailea

- www.izenpe.com webgunera sartuko da eta *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* sinatuko du e-NAN bidez edo IZENPEk jaulkitako *Herritarren, Entitatearen edo Profesionalaren* ziurtagiri elektronikoaren bidez, betiere Harpidedunaren Kontratua onartuta.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du IZENPE, Saren helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.

IZENPEk www.izenpe.com webgunean argitaratzen du erakunde bakoitzak bere konfigurazio juridikoaren arabera jarri behar duen dokumentazioa.

Oharra:

IZENPEk ez badu eskatzailea azken 5 urteetan bertaratuta identifikatu, eskatzaileak hitzordua eskatu beharko du eta erregistro-entitatearen aurrera bertaratu beharko du.

➤ Edo paperean.

Eskatzailea

- www.izenpe.com webgunera sartuko da eta *eskaeraren* formularioa beteko du, Harpidedunaren Kontratua onartuta.
- Ziurtagiriaren zenbatekoa ordainduko du, hautatutako ordaintzeko aukeraren arabera.
- Dokumentazio hau jarriko du:
 - IZENPEk www.izenpe.com webgunean argitaratuko du ziurtagiria jaulki aurretik zer entitatek bidali behar duten beharrezko informazioa IZENPE, Saren helbidera –TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUA k., 71 –1.a – 01008 GASTEIZ–.Dokumentazioa balidatu ondoren, eskatzailea erregistro-entitatean bertaratuko da, IZENPEk emandako hitzorduan.
 - Hala egin ezean, eskatzaileak www.izenpe.com webgunean hitzordua finkatu ostean emango du dokumentazioa erregistro-entitatean.
- Honela identifikatuko da,
 - Espainiako hiritarra bada, indarrean dagoen NAN, pasaporte edo gida-baimena.
 - Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, indarrean dagoen pasaportea edo haren herrialdeko nortasun-agiri nazional baliokidea, eta Batasuneko Kideen Hiritarren Erregistroak igorritako ziurtagiria.
 - Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, indarrean dagoen egoitza-txartela edo pasaportea.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, IZENPEk zehaztuko du kasuak kasu identifikaziorako beharrezkoa den dokumentazioa.



Oharra:

- Eskatzaileak identifikazio-dokumentuen fotokopia gaineratu beharko du, edo IZENPERi baimena eman beharko dio datuak Administrazio eskudunaren aurrean egiaztatzeko, eskaera-formularioaren bitartez.
- Ez da beharrezkoa izango erregistro-entitatearen aurrean bertaratuta identifikatzea, baldin eta azken 5 urteen barruan IZENPEk bertaratuta identifikatu badu eskatzailea. Kasu horretan, *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* sinatua bidal daskioke IZENPERi.

2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeari ekingo dio,

- Hautatutako euskarriaren arabera.
- Emateko moduaren arabera:
 - Bertaratuta ez, baizik eta adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora bidalita,
 - Eskaeraren sinadura elektronikoaren kasuan.
 - Edo *ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* paperean den kasuan, betiere eskatzaileak sinatuta, eta sinadura notario aurrean legezkatua.
 - Aurrez aurre, erregistro-entitatean bertaratuta.
 - Eskatzailea
 - Edo eskatzaileak baimendutako hirugarren bat, eta horrek IZENPERi aurkeztu beharko dizkio,
 - *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera* paperean, sinatuta, eta sinadura notario aurrean legezkatua.
 - Hirugarren bati ziurtagiria/erregistro-kode bakarra (EKB) jasotzeko baimena ematearen dokumentu sinatua, eta sinadura notario aurrean legezkatua.

TXARTELA / TOKEN USB:

- Bertaratu gabe ematea.

IZENPEk bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira.

Eskatzaileak www.izenpe.com webgunean argitaratutako *Entrega eta Onarpen Orria* sinatu beharko du eta IZENPEn eman beharko du, eskuz idatzia bada, edo servicios@colaboradores.izenpe.net helbidera bidali beharko du, sinadura elektronikoa bada.

- Bertaratuta ematea,

IZENPEk ziurtagiria jaulkiko du, eta eskatzaileari edo hirugarren baimenduari PINa eta desblokeatzeko kodea (PUK) emango dio, eta eskatzaileak ziurtagiria jaso izanaren egiaztatzea sinatu beharko du.



SOFTWAREA

IZENPEK *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbide elektronikora bidaliko du software edukitzaile bat eta ziurtagiriaren eskaera teknikoak sortzeko argibideen eskuliburua.

Eskaera hori operaciones@izenpe.net helbidera bidali beharko da, ziurtagiria jaulkitzeko.

Eskatzaileak ziurtagiria jaso duenean, instalatzeari ekingo dio.

Ziurtagiria sortuta, eskatzaileak elektronikoki sinatuta itzuli beharko du *Entrega eta Onarpen Orria* servicios@colaboradores.izenpe.net helbidera.

EGOITZ@ (HSM + TXARTEL BIRTUALA)

IZENPEK

1. IZENPEren HSMn sortuko du ziurtagiria.
2. Erabiltzaile bat eta pasahitz bat sortuko du, eta SMS bidez bidaliko dira eskaeran adierazitako telefono mugikorreko zenbakira.
3. Prozesua amaitutakoan, posta elektronikoki ziurtatu bidez bidaliko du *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbide elektronikora: softwarea eta erabiltzeko argibideak.

Eskatzaileak www.izenpe.com webgunean argitaratutako *Entrega eta Onarpen Orria* sinatu beharko du eta IZENPEn eman beharko du, eskuz idatzia bada, edo servicios@colaboradores.izenpe.net helbidera bidali beharko du, sinadura elektronikoa bada.

2.3 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak ziurtagiria jaulki eta 15 lanegun izango ditu behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeko, eta, beharrezkoa bada, IZENPEri funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteko.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoak, eta abar) edo IZENPEri egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean soilik ezeztatuko du IZENPEK ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.4 Ziurtagiria ezeztatzea

Ziurtagiria ezeztatzeko eskaera.

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:

- [Harpidedunak](#); hauek dute ziurtagiria ezeztatzea eskatzeko baimena: entitate harpidedunaren legezko ordezkariak, langileen arduradunak edo aurreko bietako edozeinek baimendutako hirugarren batek.
- [Eskatzaileak](#).
- [Gakoen edukitzaileak](#).
- [IZENPEK](#), administratzaileek eta erregistro-entitateek baimena dute azken entitateko harpidedun-ziurtagirien ezeztapena eskatzeko.

Prozedura

Ezeztatzea eskatzen duenak IZENPEren aurrean bideratuko du *ziurtagiria ezeztatzeko eskaera*.

Ziurtagiria edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta ziurtagiria lapurdu edo galdu denean beti.



Eskatzaileak honako bide hauetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria:

- Bertaratuta, IZENPERi www.izenpe.com webgunean hitzordua eskatuta.
- Telefono bidez, 902 542 542 telefonora deituta.
- posta bidez, ezeztatzeko eskaera sinatuta eta notario aurrean legitimatuta bidalita.
- On line, www.izenpe.com helbidean.

Telefono bidez eta bertaratuta ezeztatu nahi izanez gero, identifikaziorako beharrezkoa izango da:

- ✓ Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.
- ✓ NAN /AIZ.
- ✓ Harpidedunaren jaiotze-data.
- ✓ Euskarria

Ezeztatzeko arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke (www.izenpe.com).

2.5 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria. Honela egin daiteke:

- On line. Ziurtagiriak indarrean egon beharko du eta eskatzaileak gakoak ezagutu beharko ditu.

Beharrezko egiaztapenak egin ostean, IZENPEk *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera bidaliko dizkio ziurtagiria eta gakoak eskatzaileari. Bi bidalketa berezitan bidaliko dizkio.

Eskatzaileak www.izenpe.com webgunean argitaratutako *Entrega eta Onarpen Orria* sinatu beharko du eta IZENPEn eman beharko du, eskuz idatzia bada, edo servicios@colaboradores.izenpe.net helbidera bidali beharko du, sinadura elektronikoa bada.

- Bertaratuta. IZENPEk aurreikusitako jaulkitzeko eta emateko prozeduraren arabera bideratuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.com webgunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - On line ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- Erregistro-entitatean bertaratuta denean, eskatzaileak banku-txartelaren bidez ordain dezake ziurtagiria.



4 ALDAKETAREN KUDEAKETA

Dokumentu honetan egiten diren aldaketak IZENPEren Segurtasun Batzordeak onetsiko ditu.

Aldaketa horiek ziurtagiri bakoitzaren berariazko dokumentazioa eguneratzeko dokumentuan jasoko dira, eta IZENPEk bermatuko du dokumentu hori eguneratuta egongo dela.

Berariazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.com helbidean kontsultatu ahal izango dira.

5 ZIURTAGIRIAREN PROFILAK

IZENPEk www.izenpe.com webgunean ematen ditu argitara ziurtagirien profilak.